

Bidegileak bildumako 30, 31, 32 eta 33. aleak argitaratu dira

Diasporako euskaldunak, kronikagileak, bultzatzaileak eta irakasleak bidegile



Bidegileak bildumako 30, 31, 32 eta 33. liburuxkak argitara berri ditu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Lau ale berri hauetan diasporan lan egin arren euskararen alde saiatu diren zenbait lagun, kronikagile, euskararen bultzatzaile eta helduak alfabetatzen jardun zuten irakasle ditugu protagonistak.

Diasporan ere lanean

Bildumako hogeita hamargarren sorta diasporatik euskaldunen harremanak eta euskara lantzen jardundakoekin osatu da. Honakoak ditugu ale honetako lau bidegileak: *California-ko Escual Herria*, euskara hutsezko astekariaren sortzaile Jean Pierre Goytino; Peruko lurraldeetan misiolari ibili eta *Antzerti* aldizkaria sortu eta *Joanixio* eta *Bizia garratza da* nobelak ondu zituen Juan Antonio Irazusta; Norbert Tauer, euskal idazle eta euskalari txekiarra; eta Imanol Apalategi *Aita Bonifazio Ataun*, Argentinan jardun zuen apaiz eta idazle, irakasle, gramatikari eta hizlari ere izan zen eta *Boletín Americano de Estudios Vascos* aldizkaria ere zuzendu zuen.

Kronikagileak

Hogeita hamaikagarren sorta hau euskarazko kronikagintza landu dutenek osatu dute. Bertan ageri diren bidegileak ditugu: Juan Bautista Bilbao *Batxi*, marinela eta idazlea, Lehen Mundu Gerrari buruzko kronika bikainak idatzi zituen *Napartarra* eta *Euzkadi* aldizkarietan; Jean Saint-Pierre *Anxuberro*, *Gure Herria* aldizkariaren sortzaileetarikoa eta zuzendaria, eta *Eskualduna* astekariko erredaktore nagusia;

Enrike Zubiri *Manezaundi*, margolari eta idazlea, Espainiako Gerra Zibilaren aurreko aldizkarietan gai herrikoi eta kultuak landu zituen; Andres Arzelus *Luzear*, euskal kazetariaren aitzindari, *Argia* aldizkariaren fundatzaileetako eta euskarazko irratiaeren lehen kazetaria.

Eusko ikaskuntzen bultzatzaileak

Hogeita hamabigarren sortan eusko ikaskuntzak bultzatzen jardundako egileak ageri dira. Lau bidegileok ditugu bertan: Etienne Salaberri, idazle eta irakasle eta *Herria* aldizkariako erredakzio-buru izan zena; Martin Ugalde, kazetari eta idazlea, *Deia* egunkariko euskarazko taldearen erredaktoreburu eta *Euskaldunon Egunkaria*-ko sortzaileetako; Iñaki Barriola medikua, euskara eta medikuntzari buruzko hamaika artikulu idatzia; Karmele Goñi, etnografia emakumearen ikuspegitik landu duena.

Alfabetatzen jardundakoak

Hogeita hamahirugarren sorta umeak euskaraz alfabetatzen jardundakoekin osatu da. Bertan dira Frantzisko Torres Ibañez *Aita Felipe Murietako* kaputxinoa, Nafarroako kultur erakundeekin batera haur eta gazteak euskarara zaletzeko asmoz ekintzak antolatu zituen; Jose Antonio Retolaza, *Kili-Kili* aldizkariaren sortzaile; Janamari Malharin, *Herria* astekariko kolaboratzaile eta Sakramendu Sainduko Bepeperak euskaraz lehen aldiz kantatu zituen; Izaskun Arrue, andereñoa, 1963an euskarazko lehen gela Gasteizen sortu zuena eta Olabide ikastolaren sorreran parte hartu zuena.



Bidegileak bildumako ale berriak



PERTSONAJEA:
Izaskun Arrue

LABURRAK

- Araba Euskaraz
- Bastidan, Nafarroa
- Oinez Lizarran



• *Asteleheneko Goienkaria*

- Bernardo
- Atxagaren liburu berria



Gure Irratia-ren aldeko kanpaina

- *Herria* aldizkariaren artxiboak errerik



Kultura Saila
Berlingo Expolinguan

laburrak

Araba Euskaraz Bastidan, Nafarroa Oinez Lizarran

Araba Euskaraz-en 24. edizioa izango da 2004 urtean. Bastidan izango du hitzordua, ekainaren 20an, *Uzta hartu, uztartuaz* lemapean ikastola berria eraikitzea helburu. Kukuxumusuk egindako mahats hostoa izango du ikur.



Nafarroa Oinez, berriz, Lizarran egingo da, urriaren 17an, haur eskola berria egiteko dirua biltzeko asmoz. Jaiaren leloari dagokionez, *Lizarran@euskara.zai* asmatu dute antolatzaileek, euskara komunikaziorako leiho irekia dela adieraziz. Logoa, berriz, Nestor Basterretxeak egina da.

Astelehenero Goienkaria

Debagoieneko astekari *Goienkaria*-k urrats berria egin zuen abenduaren 22an. Egun horretan, *Astelehenero Goienkaria*-ren zero alea kaleratu zuen. Astekariaren arduradunek adierazi dutenez, otsailaz gero asteen behin ez ezik, bitan ere izango da kalean *Goienkaria*: batetik, ostiralero, orain arte ohi zuenez, eta astelehenero. *Goienkaria* ez bezala, *Astelehenero Goienkaria* ez da etxeko etxe banatuko eta harpidetza bidez edo kioskoetan besterik ezin izango da eskuratu.




Bernardo Atxagaren liburu berria

Soinujolearen semea, Bernardo Atxagaren lan berriaren izena abendu hasieran Durangoko Azokaren kariatara Iruñeko Pamiela argitaletxeak kaleratu zuen liburua. Lan berriak idazlearen aurreko guztiak hartzen dituela bere baitan adierazi du Pamiela etxeak, eta irakurleak lehenetik ere ezagunak zaizkion pertsonaje eta gaiak aurkituko dituela. Euskal Herriko idazle ezagunenaren nobela berriaren zain zen irakurlea eta salmentarik handienak lortu zituen Durangoko Azokan.



pertsonajea

IZASKUN ARRUE Gasteizko lehen andereñoa



Argitara berri diren Bidegileak bildumako batean, 33. alean, ageri da Izaskun Arrueren biografia. Agurtzane Ortiz de Landaluzek osatu du "Gasteizko lehen andereñoaren" historia.

Izaskun Arrue Arriben (Nafarroa) jaio zen 1927ko abuztuaren 28an. Sei urterekin joan zen Ataloko eskolara eta bederatzi urte zituela, berriz, batxilergorako sarbidea egin zuen Tolosan. Handik, Donostiako Teresia-

naetara, batxilergoa bukatu arte. Gero, errebalida egin Valladoliden eta magisteritza eta erizaintza ikasi zituen Donostian.

Ikasketak bukatuta, Lezaetan, Arribetik bertara, hasi zen lanean. Lezaetako maistra izateaz gain, Araizko bailarako praktikante lana ere egiten zuen.

1960an Gasteizera ezkondu zen eta hiru urte geroago Olabide ikastolaren hazia izango zena erein zuen, zenbait gurasoren eskariz, Beheko Harresiak kaleko etxebizitza batean, hamalau ikasle zituela. Ordurako, Donostian izana zen Izaskun Arrue, Karmele Esnalen ikastolan Elbira Zipitriaren sistemari trebatzen.



Hiru urtez Beheko Harresiak kaleko ikasgelan eta 1967ko urrian Estibalitz etorbideko 26. zenbakira jo zuten Izaskun Arrue eta Garbiñe Etxeberria andereñoek eta 80 umek. "Colegio Padre Raimundo Olabide" eman zioten eskolari legezko izena, "ikastola" hitza galarazita baitzuten. Hurrena, gurasoek kooperatiba egin eta Olabide ikastola berria eraiki zutenean 1973an andereño jardun zuen Arruek.

Han hasi zirenerako euskara batuaren aldeko erabakia hartua zuen Euskaltzaindiak. Garai hartan hainbat gorabehera izan zen bazterretan. "Hemengo ikastolan ere izan genuen istilu handi-handia eta hamaika eztabaida izan ondoren, ikastolako batzordeak erabaki zuen batua sartu behar zela. Batua sartzea erabaki zutenean, nik ikastola utzi nuen" kontatzen du oraindik Izaskun Arruek, "ni don Manuel Lekuona bezala nengoen, Labaien, Lino Akesolo eta beste batzuk bezala... batuaren kontra". Ikastola utziz gero, Osakidetzan egin zuen lan, Gasteizko Abetxuko auzoko anbulatorioan, erizain, hamazazpi urtez, erretiratu arte. Baina, horrekin batera, euskarazko eskolak ematen jardun zuen, Magisteritza fakultatean, apaizgaitegian eta Samaniego eskolan.

Izaskun Arruerena, bizitza oso bat euskararen aldeko lanean.

GURE IRRATIA-REN ALDEKO KANPAINA

Entzulearen laguntza eskatu du Baionako irratia

Kanpaina berria abiatu zuen joan den urtearen hondarrean Baionako *Gure Irratia*-k. Nonbait, 2003 urtean diru arazo kezagarriak pairatu zituen *Gure Irratia*-k, diru laguntza ofizialen mendekotasunaren eraginez. Kinka larritik ateratzen ari da orain Baionako irradi emisorea baina bertatik adierazi dutenez, "gure ahalak biziki mugatuak dira. Guztiek nahi dugun irratia egiteko, zuen laguntza baitezpadakoa da".

Abiarazi zuten kanpaina tarteko, azaroaren 19tik abenduaren 13 bitarte, *Gure Irratia*-k Baiona inguruko herrietatik (Angelu, Miarritze, Basusarri, Mugerre, Milafranga, Hazparne...) zuzen-zuzenean burutu zituen emisioak, entzuleari hurbiltasuna erakusteko asmoz. Hilabete batez, beraz, Lapurdiko herri desberdinetatik zuzeneko emankizunak proposatu zizkien irratia entzuleei, tokian tokiko bizitzaz eta txokoez mintzatzeko.

Kanpainarekin bat egin nahi izanez gero, jar harremanetan *Gure Irratia*-rekin ondoko helbidean: 18, rue Poissonerie karrika 641000 Baiona.



Herria aldizkariaren artxiboak errerik

1944tik hona bildutako zenbait ondare alferrik galdu dira



Abenduaren 6an suak *Herria* aldizkariaren artxiboak eta liburu zahar andana erre zituen. Egun horretan, igandea baitzen, goizeko hamaikak aldera, Baionako Lafitte karrikako 11. zenbakian, su hartu zuen *Herria* aldizkariaren egoitzaren azpiko enpresak. Baiona Tipiko etxe gehienak zaharrak eta zurezkoak direnez, sugarrak berehala hedatu ziren eraikinean. Suhiltzaileek ura erabili zuten eta horrek ere kalteak eragin zizkion *Herria*-ren artxiboari. Finean, 1944tik 1951ra argitaraturiko zenbakiak alferrik galdu ziren, dela errerik, dela uretan itorik. Aldizkariaren lehen zazpi urteetako lekukotasunaren aztarnarik ez da, beraz, *Herria*-ren egoitzan.

Herria aldizkaria 1944an sortu zen, Piarres Lafitte-ren zuzendaritzapean. Lau orrialde zituen hasieran, eta zortzi ditu egun. Euskaraz zen batik bat, baina frantsesez ekarri ohi zuen artikulua nagusietarik bat. Emile Larrek hartu zuen Lafitte-ren lekukoa 1967an eta iaz bertan hartu zuen haren lekua Jamattit Dirassarrek, *Sud-Ouest* egunkariko kazetari izanak.

Suak eta urak gorabehera, abenduaren 6an, igandez, suak hartuagatik, biharamunean, *Herria* aldizkariak ohiko 3.000 aleak kaleratu zituen.

Kultura Saila Berlingo Expolinguan

Miren Azkarate Berlingen izan zen euskararen eta euskal kulturaren irakaskuntza bultzatzeko asmoz



Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko ordezkariak Berlingo Expolinguua hizkuntzen eta kulturen azokan izan ziren. Miren Azkarate sailburua Berlingo Unibertsitate Libreko arduradunekin harremanetan jarri zen hurrengo ikasturtean euskara eta euskal kultura ikastaroa abiarazteko asmoz. Kultura Saileko ordezkariak, bestalde, Expolinguak antolatutako kultur ekitaldietan parte hartu zuten, bai eta euskarari buruzko mintegi eta ekintzetan ere.

Izan ere, euskara presente egon zen Expolinguan, Eusko Jaurlaritzak antolatutako stand-aren bidez. Expolinguarekin bat eginez, gainera, euskara ikergai izan zen Berlingo bi unibertsitatetan, zenbait mintegi eta tailerren bitartez: batetik, Berlingo Unibertsitate Librean eta, bestetik, Potsdam-eko Unibertsitatean. Miren Azkarate sailburuak berak ere hitzaldia egin zuen euskarari eta hizkuntzaren egoerari buruz Berlingo Unibertsitate Librean. Horrekin batera, unibertsitate horretako errektore eta dekanoarekin bildu zen Azkarate, 2004. urtean, eta unibertsitate horretan bertan, euskara eta euskal kulturari buruzko ikastaroa abiarazteko asmotan.

Ikasketa hauek antolatzeko gogoia 2002an hasi ziren lantzen Berlingo Unibertsitate Librean eta Kultura Saila. Ez zen asmo bakana izan, Kultura Saila munduko zenbait unibertsitatetan euskara eta euskal kulturari buruzko ikasketak garatzeko proiektua lantzen hasi baitzen duela urte batzuk. Adibidez, joan den azaroan bertan, akordioa lortu zuen Kultura sailburuak Txile, Uruguai eta Argentinako zenbait unibertsitatetako arduradunekin, euskara eta euskal kulturari buruzko ikasketak gauza ditzaten. Proiektua, lehenik eta behin, dela pisuagatik, dela kokapenagatik, dela euskal jatorriko komunitate handia dutelako, unibertsitate estrategiko direnetan hasiko da lantzen.

Expolinguak 16. edizioa burutu zuen azaroan. Europa erdialdean denik eta hizkuntzen eta kulturen azokarik nagusia da. Berlingen egiten da eta, hala linguistikaren nola kulturen aldetik ere, hiria garrantzi handikoa denez, azoka bera ere hots handikoa da. Berez, Frankfurturten hasi ziren azoka egiten baina Berlina aldatu zuten bi Alemaniak bat egin zutenean. Eusko Jaurlaritzak ere urtero hartu du parte Expolinguan, bai Frankfurturten egiten zenean eta bai hiriburuan egiten denean ere.



Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16
e-posta: l-Sosoaga@ej-gv.es



Euskara



Gaztelania

Izen-deiturak:
.....
Helbidea:
.....
Herria:
kodea:Lurraldea:.....
Tel.:
e-posta: